

Igela aldizkariaz: euskaldun heterodoxoen errebista

Peillen, Txomin

Giroa. Parisen 1962ko otsailean argitaratu zen *Igela* aldizkaria. Bi paristarrek, bi hiritarrek, humorezko aldizkari bat sortu zuten Jon Mirandek eta Txomin Peillenek. Jon, garaiko ausartegiz, beste aldizkarietan libreki ezin argitaratuz, errebista heterodoxo horretan bi urteez idatzi zuten. Urte haietan *Euzko Gogoa*, *Jakin*, *Karme*le eta *Egan*, ez zen beste aldizkaririk? Hegoaldean aldizkarien erredakzioa, euskaldunen, frankisten eta elizaren zentsurengatik oso hertsia zen. Iparraldean, garai haietan ezkertiarak ez baitziren euskaraz arduratzen, euskal aldizkariak apaizen eskuetan zeuden (*Gure Herria*, *Herria*, *Ezkila*). Baionara etorri zenean *Euzko Gogoa* Mirandek eta bioi artikuluak baztertu zizkiguten; Donostian Mitxelenak idatzi ezin zela edozer argitaratu hala nola zatika ere Jon Miranderen eleberria *Eganen*, bes-tela akabo aldizkaria.

Mirandek, berrogei bat olerkiz kanpo, ipuin batzuk eta *Haur besoetakoa* eleberria 1959. urtean idatzia zuen (1970. argitaratua), baina olerki bilduma 1953. urtean bukatua zentsura mota guztiengatik ezin argitaratuz zebilen 1973. urtean Jon Mirandek hil eta gero argitaratu zen. Batik bat, apaiz zenbait Miranderen aurka agertu ziren aurretik aitortu baitzuen bere bilduman olerki erotiko batzuk egongo zirela. Apaiz horien artean Ipar Euskal Herrian, Aita Lafitte 'liberala', Aita Chabagno misiolaria; Hegoaldean, Aita Mocerroa Bilboko apezpikuaren ikustera joan zen, eta eskatu zion, lehen bai lehen, gazteria ustelduko zuten Jon Miranderen obrak Espainian debekatuak izan zitezen, beraz euskaldun katolikoen artean Vaticanoaren Indexa, baino urrunago joan nahi ziren, legez debekatzearaino: obispoaren erantzuna izan zen liburua debekatzen bazen hobeki salduko zela.

Azpitik aski indar egin zuten euskaldun integristek nahiz Ameriketara ez zen Elizaren edo gobernuaren zentsurarik, euskaldun abertzale ipurzurien kastak Jon Miranderen olerki bilduma argitara ez zedin erdietsi zuten eta olerkaria hilez geroz argitaratu zen bilduma. Adierazpen askatasuna dela-eta Inkizizioaren ideiekin bizi ziren euskaldun batzuk. Txomin Peillenen ipuinak eta eleberri urte hoberen zain zeuden, baina ez zuen horrelako erasorik jasan. Ulergarria da *Igela* hain garratz iza-



Jon Mirande, 1958. Euskaltzaindia-Azkue Biblioteka eta Artxiboa.

tea eta horrela, Jon Mirande baztertuak Igelaren eskarmentuen ondotik ez zuela euskaraz gehiago idatziko, gaixotasunean amiltzeko.

Aldizkariaren lana. Aldizkariaren lan material guztia Peillenek egiten zuten, testuak oro berriz jotzea, gratatzea, postatik igortzea, eta ordaintzea. Teulé Mauletar bearnese *bouquiniste* delakoak, Seine ibaiaren kaltetan liburu zahar eta bitxiak saltzaileak, bere stencil inprimagailua eta gelatxoak utzi zioten horretarako. Txominek argitaratzen zuten aldizkaria gaizki inprimatua zen, polikopiaz, paper txarrean. Stencilen egiteko idazmakinak berezko orrialde bat letraz letra zulatatu behar zuten, baina Txominek zeukan Olivetti makina zaharrak ez zituen letrak beti ongi zulatzen; horregatik diot liburu gisa *Hordago* argitaletxeak

Donostian 1979. urtean argitaratu zuenean, irakurtzeko hain zailak ziren testuak aldatzea merezimendu handikoa izan zela. *Igela* aldizkariak azal ederra zeukan, berde behar zen bezala eta anfibioaren irudia Alfontso Irigoien bilbotar adiskideak egin. Halere, oso urrun zegoen 1952. an Estatu Batuetan abiatu zen *Mad*, testu gogor, argazki eta marrazki karikaturatunetik.

Egitasmoa. Hiru hizkuntzetan idatzi agiri batekin irakurlegaiak abisatuak izan ziren. Igelaren satira xedeak politika aldarrikapen bat izan balitz bezala hartu zuten, dei hori irakurri zutenak astoegi zirelako edo ez ulertuarena eginaz, beren baka nahasia izan ez zedin jazarri ziren. Alta, honela idatzi zuten Peillenek lehen deia.

Erdarazko aldarrikapena hau izan zen:

Una revista satírica en vascuence/ *Igela*

“En la vieja estampa sonríe maliciosamente Erasmo. Se puede oír el reír de Rabelais. Hoy día, cuando tenemos la cabeza hecha un bombo por el ruido de las doctrinas y el gritar de los militantes el recuerdo de los humoristas y satíricos puede salvarnos. Así haremos en *Igela*, ayudándonos de Erasmo, de Alfred Jarry, Oscar Wilde, Curros Enríquez y Bernard Shaw; pero de ningún modo haremos propaganda política o religiosa.



Nos sería muy fácil tarea burlarnos de extranjeros, pero el proverbio de Oihenart nos recuerda “*que no se debe echar piedra en casa del vecino, cuando la suya es de vidrio*”. Por eso, nuestra sátira se dedicará a los flacos que tenemos en la coraza. Nuestra divisa será “*cuando su caballo esta sucio vale mas almohazarlo que acariciarlo*”. Así haremos, aunque la satira nos haga rechinar las muelas.

Muchos escritos vascos no se publican porque el ambiente grave y puritano de nuestra literatura censura, más que las oficiales, los frutos verdes de escritores (Doctor Etchepare) o del pueblo (Cancioneros). Con ese modo unos quieren que el mundo no tenga imagen diferente del 'honrado vascongado'. Mientras influyen esos tabúes de derecha e izquierda, estamos en peligro de perder nuevos Unamunos. Podemos meditar el ejemplo de Sean O'Ceasy, quien tuvo que huir de su tierra irlandesa por haber visto claro en ciertos defectos de su nación.

Sin dejar nada de este espíritu, pensamos que vuestras críticas nos ayudarán para hacer de *Igela* una *Rana* vivaracha y placentera. Con nuestro dinero personal y unas cuantas suscripciones de honor, haremos un boletín trimestral en multicopia. Pero, con vuestras ayudas y suscripciones queremos mejorar *Igela* para que la piel sea tan hermosa como las entrañas.

Agradecemos amigos vizcainos, guipuzcoanos, suletinos y navarros por su confianza y ayuda. Damos las gracias al "bouquiniste" suletino de París, señor Teulé, con su permanente ayuda e impulso ha permitido la salida de *Igela*".

Aldarrikapen zintzoaren ondotik, Txomin Peillenek humorezko egitismo hau idatzi zuen.

Gure mitología

Mars Jainkoa

"Lehen erremedioa. Borrokarako gustua, basakeria eta o(h)itura salbajeak galtzen ditu barrabilak mozten badizkiozu... oilarrari. Beraz nere jaun maiteak, gerra eta borroka itsusiak gizonen artetik galdu daitezzen badakigu zer egin.

"Bigarren erremedioa. Gizon guziak (h)ilik ikusiko direnean ez da gudurik, ez gerlarik ge(h)iago izango, baina nor izango ikuslea?

"(H)irugarren Erremedioa. Elkar maita ezazue Kristorengatik Kurutzada odoltsuenak egin dira eta heretikoak e(h)un milaka (h)il. Guk, Igelan, elkar higuint' ezazue doktrina bezala erabiliko dugu zuek kontrarioa egingo duzuelakoan, hola erabagi eta deliberatu dugu egitea".

Venus Jainkosa

Parabisuian nahi e'nuke emazterik ezpaliz (Bernat Etxepareko "Emazteen fabore")

Uzki maite, higuint e'laite (A. Oihenart "Atsotitzak") Haragiaz maite gorrota ezin, beraz amoriozko gozamenak baino ez gaitu gorroto, herra (eta) gerretatik salbatuko.

Onets nezan gure atsoa, iduri zekidan neskatxoa, beraz amorio gozamena gazte egoteko erremedio (h)oberena da. Primaderan batez ere gazteak kanporat ezkapatzen dira eta zuk bistatik galdu bezain laister itzalean, izkutuan gordetzen. Gero,



Txomin Peillen, 1962.

ge(h)iegi jan dutelako, sabel (h)andi, zorro (h)andi hatzematen eta harrapatzen dituzu, lo-diegiz ezin ibiliz *ardiez ari nintzan, naski, zer uste zenuen zela besterik*.

Goseagatik jaten duenak, egarri direnean baizik ardo edaten dutenak, (h)ume egiteko bakkrik ‘apaintzen’ dutenak, *txerriak dira*.

Eros.Venusen (h)ume txistakorra, le(h)enago geziekin bi(h)otz zulatzen ibili o(h)i zen. Baina Greziatik landa Amerikako orduan gabilta. Pistola bat erakusten da maite gaztearen biltzeko, oinetan tiro bat botatzen beretzat edukitzeko eta azkenik bala bat buruan maitez kanbiateko.

Eta horrela laburtu zuen Txomin Peillenek beren egitekoa.

Heterodoxoen xede eta egingai bereziak

“Gure mundu txar hau apostolu gaiztoz betea da. Batak, laguna terrorismu egitera bultzatzen, berak ezer egin gabe; besteak hotsematen zaitu bertutera berak aplikatu gabe. Igela ez du inor ezertara, deusetara bultzatzen salbu eta pentsatzera predikatzen digutenean, ongiaren bidean ez dutela guk bezain beste egiten.

Jende askok, pertsona anitzek, paradisu bat hitzematen dizute. Guk, ordea, infernu bat eskaintzen dizuegu pozez eta alegrantziaz erre gaitezen:

Satan mintça

Eguinen diagu bertan

Ifernu bat berririk

Eta hura ezarriren

Berehala betheriq (Helena Konstantinoblako, pastorala)


Erasmoren Erokeriaren laudorioz idatzia aipatuz Igelan:

“Zer da bizitzea atseginak eta plazerak kentzen bazaizkio? Merezki al du bizitza izena? Adis-kideak txaloak bi eskuekin zartako jo dizkidazue! Oi, banekien denak eroegi zinetela – beraz argiegi – nere abisutik ez izateko.

“Stoicistei ere plazera gustatzen zaie, ezin dute higuindu. Jende arrunten bistarako berek gozamina itxura itsusienez eta fama txarrez estaltzea saiatu arren: komedia (h)utsa. Besteak urrundu na(h)i dituzte, berek libreago gozatzeko.

“Baina, jaiko guztien izenean, konta a(h)al dezaket zein den iraun-gaitz, gozo gabe eta higuigarri ez den bizitza ordu bat, Erokeriak, Nik, ez badut atseginez gazitzen. Aski nuke Sofokles lekuko eta jakile hartzea, aski goraiatu ez den poeta handi horrek nitaz egin duen aipamena lagun ekarriz *Bizitza atsegingarriena da zuhurtzia izpirik gabe joaten dena*”. (Erasmus *Moriae Encomium*, 1509)

Mirandek zer idatzi zuen? Izterbegiei erantzunak, humore beltza, *Euskaldun zintzoen balada, Kattalin, Txoriontasuna* eta *Kama goli* euskaldun ijitoen hizkeran bertsoak; sadismoa, euskaldun itsusiaren kronikak egin zituen. Peillenek, beste humorezko eskaintzak, lapurreta kronikak, euskaldun zintzoen ideia hiztegia, hitz berri mixtoak (urrutifono, casadona, señoirlaritz eta beste) testu herrikoiak biltzea eta testu zahar faltsua, “*Jon Dane Akherrune bizitze santia*” zuberera zaharrean idatzi. Laguntzaile eta lehen bultzatzaileen artean, bederatzi urte lehenago, Mirande ezagutarazi zion Andima Ibinagabeitia izan zen. Idazleen artean Aingeru Irigarai eus-



kaltzaina, Federiko Krutwig euskaltzaina, Juan San Martin geroago euskaltzain izanen dena, eta Ibinagabeitia.

Zergatik satira aldizkaria, eta ez pentsamendu edo filosofiazkoa, edo historiakoa, edo filosofiazkoa? Mirandek Peilleni esan zion euskaraz filosofia hiztegia ez zela nahikoa garatua horretarako eta hark erantzun bera gazteegi zela filosofo izateko. Aldizkari honen egitea Jon Miranderi eskaini zion Txominek, errusiar lagun batek Moskuko *Krokodilia* erakutsi ziolako, Mirandek *La Codorniz* Madrilgoa, eta *Mad* Estatu Batuarra jaso zituen. Eta ongi ezagutzen baitzituzten Frantziako *Le Canard Enchaîné* eta *Rivarol* aztertu. Besteen gisa animalia bat hautatu zuten bi paristarrek eta ahoa zabal zabalik badirudi igelak

barre egiten duelako eta igelek erlijio litania bat bezala kantatzen dutelako *Igela* izena aukeratu zuten.

Errebistaren tituluan *heterodoxo* ipini zuten, Euskal Herria katoliko ortodoxiaren menpean bizi zelako eta beren aurreko zuberotar heterodoxoak gogoan: bai Belatar eta Ezpondatar protestanteak, bai, Egiategi erreformista, bai Chaho antikerikala, ahaztu gabe pikareska herrikoia. Zuberoa hemeretzigarren mende erditik aurrera politikan erdi ezkerrekoa izan da eta beharbada batzuk protestante izan zirelako, hamaseigarren mendetik aurrera katolizismoa kulunkan jarri zen.

Halaber, asto-lasterrak eta maskaradak herri literaturari auzoko euskaldunentzat ausartegiz eskandalagarri zirenak esaten zituzten. Beraz, beren guraso eta arbasoen zuberotar ohiturak segituz bi paristarrek pikareskari ez zioten uko egin. Erabaki zuten herri baten heldutasunerako bere buruaz iseka eta nausa egitea beharrezko zela, ezen diktaduretan ere egiten baitzen, bestalde, horretarako satira zela bidea.

Igelaren kasuan burges elitismorik egin gabe herri literaturatik abiatu ziren, bai eta azken zenbakietan herri literaturazko kantu, bertso eta beste baizik ez argitaratu. Testuak sailkatzen badira Zuberoan edo Gipuzkoan (Eibarren) bilduak 193. orrialdetatik 85 herri literaturazkoak dira eta asko ez dira orduko etnologia bildumetan aurkitzen, biltzaileak abadeak zirelako. R.M. Azkuek bere kantutegiaren hitzaurrean garbiki dio Zuberoan bildu bertsoak itsusiegi zirenean, haien lekuan bere bertsoak ipini zituela, eta noski hizkuntza hobetu zuela, halaber egin zuten Lhande eta Larrasquetek Etxahunen bertsoak argitaratu zituztenean. Igelak itsuskeria satirikoan lekuan ez zuen bere koa! Koa! bertsozik jarri.

Igelak bertsolarien kantu batzuk eman zituen, Batista Sala gutxi ezaguna, Luis eta Joanes Liguex, hobeki ezaguna, biak Larraineko, P. Topet Etxahun eta Beñat

Mardo Barkoixekoak. Bestalde Leopold Irigaray ligiarrak bildu atsotitzak (241), txikito (artzain desafioak) eta albadak (hogeita hamazortzi eske bertso) argitaratu zituzten; gainera, Igelak argitaratu zituen herri literaturazkoak Pariseko Bibliothèque Nationalean lo zeuden. Irigarayen testu horiek beren frantsesezko itzulpenekin eman zituzten.

Harrera Argitaratu bezain laster orduko abertzale katoliko bi gutxienik Josu Oregi eta Paulino Larrañagak Igelari idatzi zuten, *Enbatako* anonimoak delako berri paperean eta *Herria* astekariko demokrata kristauek, denek moralaren izenean haien aurka azaldu ziren, nahiz Igela aldizkarian ez zen inolako pornografiarik izan, *txikitoak*, zuberotar artzainen hamar bat bertso humorezkoak izan ezik A. Irigaraiek herrian bildu zituenak eta azken zenbakitan eman. Aingeru Irigarai euskaltzainak nafar apaiz baten kontra andre izorra batek idatzi kantua argitaratu zuelakoan, antiklerikal etiketa jarri zitzaion eta Igelak erantzun:

“Franco-euskaldun kazeta batek, frantsesez (euskara popularentzat) Igelari antikonfesional bekaturia egotzi dio eta etsenplutzat eman bertsolariak, esanaz (h)obe genukeela horien bertsoak publikatzea, baina kritika horrek ez daki euskara ongi edo astoa da, baita frantsesa gutxiago, antikonfesional eta antiklerikal nahasteko lehenik, eta ez konturatzekeo antiklerikal usaina daukan kronikan herrian, populuan bildu buruxkez egina dela; baina, gure herriko burges “elite” horrek ez daki populua zer den eta aski paper beltzatu dugu gor horiekin, apaizak baino apaiztiarrago diren horiekin”.

Igela aldizkariari; askatasun gisa, Zuberoan bildu zen bigarren bat eman zuten: abade batek eta hamalau urteetako neska batek sortu eskandaluaz 1960. urteko bertsoak bildu eta eman ziren; ondoren debekuari kasurik egin gabe hemezizigarren mendeko beste kantu bat. Inoren ez mintzeko izenak abizenak eta herrien izenak aldatu zituzten. Eibartik eta Bilbotik ere jaso zituzten abertzaleez, ugazabaz eta apezzez satirak. Bai, Igela ez zen ponte igel bat.

Ondoren, aipatzen zituzten saihebidetakoak (bizioak *kristaueraz) gazte irakatsi nahi zietela zioten, eta noski, Enbatakoek Mirande eta Peillenen moralitatea aipatuz Igelaren bi arduradunak bizioz beteak zirela idatzi zuten. Izengabeko bertsoak ere egin zizkieten. Halaber, lapurren iruzurrak aipatzean Txomin Peillenek lapurretara, ebastera bultzatzen zituela gazteak idatzi zen. Bizioa dela-eta *Igelan* erantzuna aurki zezaketen:

Erotika. Kristautasunak pozoia eman zion Eros-i edatera. Ez zen hargatik hil, baina gaizkitu zen eta bizio bat egin”. (F. Nietzsche)

“Ideiez” lekat egin zitzaigun, lehen kritika merezi genuen, letrak nekez irakurtzen zirela. Itxura dela-eta F. Krutwigek bere euskara romanikoan idatzi zigun: Revistaren aspektu haur importante dela uste dut. Bertzenaz praesentazione materialetik revistaren kontentua iujatzen baita.

Nahiz euskaraz zen Igela Iparraldeko frantses euskaldunek beren kritika gehienak frantsesez idatzi zituzten. Behin, Mirandek abertzale ahalkegarriak deitu zituen Enbatako abertzaleak, elebiduntasuna eskatzen zutenak % 90 frantsesez idatzen baitzuten, Enbatakoek frantsesez esan zieten Igelakoei euskaraz zer egin behar zuten eta zer ez, orain hizkuntzaren aldetik ikastola eta alfabetatzeak izanki, beti berdin, ipar abertzale gehienak badabiltza frantsesa dakitela frogatzen, beraz

lan honetan ez ditugu luzaroegi aipatuko. Miranderen lapurterazko erantzunetik bat oso garbi da:

“Erran gabe doa ez genduela hargatik Enbataren iritzia eskatu, hau politikazko kazeta bat baita frantsesez egina, euskarazko literaturarekin zer ikhusirik ez duena. Halaz eta guztiz ere, gure lehengo numeroa argitara eta hurrengo Enbatak (martxo 1962) artikulua bat gutaz ekhartzen zuen, hartan erraiten baitzeraukun zer egin behar genduen eta zer ez egin, errejent (eskola maixu) batek bere menpeko haurrei predikatzen deraiuen seriotasunarekin.

“Bainan, nehondik eta nehola ere ez dadukate eskubiderik geuk hautatu dugun zuzenbidean(euskarazko idazkuntzan) guri leitzione egiteko. Horregatik, gure bigarren numeroan garbiki erran genduen zer pentsatzen dugun gutaz egin zuten aipamen hypokritaz”.

Iparraldekoek nahi zuten manex nafar-lapurteraz idatz lezaten, eta batek esan zien baldin kostatar eskuaran idazten bazuten harpidetuko zela. F. Krutwigek grekolin lapurtar klasikoan idatzi zuen, eta herri bertsoak bakoitzak beren euskalkian eman ziren (nafarreraz, bizkaieraz, gipuzkeraz). Aitortu behar da euskara batua abiatzen zela eta Mirande eta Peillen gipuzkera osotutik zetozela, horregatik aipametan gakoan artean erabili ez zituzten (h) batzuk gaineratu ditut. Mirande lapurtar klasikora igaro berria zen Hegoaldeko F. Krutwig eta L. Villasanteren aholkuz, baina Peillenek ustez eta hobeki ulertua izango zela euskalkiak nahasten zituena, zen.

Ideiak” direla-eta Paulino Larrañaga Miranderen zentsore delakoak honelako kristau dotrina klase bat idatzi zuen:

“Irakurri dut *Igela* eta nire iritzia ona ezpazaizu ere ematera noa. Loikeri asko irakurri dut aldizkari ortan. Ezta ori lan ederra Europa berria egiteko. Ez al zaizu bururaten ori bano bide oberik mundu txoro au zuzentzeko ”.

Zoritarrez hurrengo belaunaldiak, *Igela* ezagutu gabe, katekismotik urrunduz bide txoroagoan sartu zen. *Igelaren loikeriak* direla-eta konturatu naiz aldizkarian eslogan bi eman zituela: Lohiarekin dira munduko ontzirik ederrenak egiten. Lo(h)i istilen artean ibiliz da ikasten ez zikintzen.

Parisen bazen euskotar aberats talde txikia erdaldun, baina euskara galdurik, eta batzuk, jakina abertzale amorratuak besteei aholkatzen erdaraz, euskaraz hitz egin behar zela eta nola eta zer idatzi. Iparraldean euskal kultura beheko mailan atxiki nahi zuten burges folkloristak baziren, hala nola dantzari bat euskal kulturak ez zuela eleberri, ez olerki ez filosofiarik behar bere geroa Zuberoako pastoral kristauen antzeko antzerkia eta bertsolariekin nahikoa; denbora galtzen zela jendei irakurtzen ikasten eta euskara gaurkotzen.

Geroago, literatura jaso eta askeago baten aldeko giroa hobetu baldin bazen oraindik 1982. urtean Peillenek Mitxelenarekin eztabaida luzea izan zuen, jakintsu handiak ez baitzuen ulertzen zergatik gazteak euskara unibertsitaterako gaitzen zebiltzan, berak zion literatura munduan asko bazela egiteko eta zein nahi gai harturik idazteko, eta euskara ez zuela beste xederik hartu behar.

Igelan irakur liteke Txomin Peilleni gertatua 1956.an Congreso Mundial Vasco horren karietara: Sorbonnen egin ziren mintzaldietan. Lehenik hitz egin zuen oroitzen ez zaidan frantses euskaldun bat, frantsesa ongi zekiala erakusteko eta sasi

kostunbrismoren bidetik; hurrengo J.M. Barandiaran izan zen, euskaraz. Aurrean neukan lapurtar jauntxo bat pottokak eta kontrabandoa euskal baloretzat zeukana. Burges hori aski laster parrez hasi zen eta frantsesez goratik esan "qu'il est chiant ce vieux con!" Zein kakegingarria den alu zahar hori! Jauntxo horren hitzak nire alboan zegoen Bitor Kapanaga otxandiarrari itzuli nizkionean Iparraldeko euskal kulturaz zeukan aurre iritzia galdu zuen.

Jon Mirandek, Pariseko *Elgar* aldizkarian, oraindik aske zegoen garaian 1950. urtean orduko Iparralde eta Hegoaldeko euskaldun buru handien irudi eder-raz bertsoak eman zituen, berriz *Igelan* 1962. urtean argitaratu zirenak:

Euskaldun zintzoen balada

(Aldi berean Orzi euskal jainkoari zuzendu galde otoitz bat dena, zintzo ez den batek eginik)

Soin zabal, zalu, txapeldun
Euskaldun eta Fededun,
Handi baita sudur mintzo,
Zintzo dira, oi! Hain zintzo
Eta barnez oro zaldun...
... Nahiz arrunt den azala.

(Izatetik hek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)

Ilunpean zeuden lehen
Baina JEL argia goien,
Jautsi baita Euskadira,
Argiturik bizi dira
Ahalikan eta zehen
Demokrat'onen gisala.
(Argitzetik hek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)

Jakintza badute anitz
Atso-,haur-, eta zuhurt-hitz;
Badakite politika
Pilota, dantza, kantika
Bai eta kantu ez likits;
Leitzen dakite Misala
(Leitzetik haiek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)

Trebe izanki teknikan
Joritzen dira Amerikan;
Haatik, han ere zintzoki

Elkartzen dira Batzoki
Abertzaleetan; ez bakan
Joaten ere elizala
(Joritzetik hek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)

Apaizak eta auzapezak
Benedikatu ezkontzak
Egiten dituzte beti:
Onetik landa hobeti
Dastatzekotan aratzak
diren neskekin, ontsala.
(Ezkontzetik hek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)

Baina ahanzten zitzaidan
Ospatzea neurtitzotan
Haien janzdura jatorra
Ongi zuritu atorra
Dute janzen igandetan
Bihotzaren zuriz ala?
(Zuritzetik hek bezala
Orzi Jaunak zaint'nazala)
IGORTE

Nola juduen baitzinen
Zintzo diren euskaldunen
Jauna zara Jahve, gisala.
Zintzotzera hek bezala
Orzik utzi ez nazala

Euskal literatura hasiera batean eleberri batzuekin baita Zaitegi eta Ibina-gabeitiaren grezieratik eta latinetik argitaratu itzulpenekin bizi zen: nekez iristen zen, gutxi irakurtzen zuen herri batera. Aitortu behar da kasu horietan gure euskal kulturak Francoren menpean antzerkiaren bidez, eta herri literaturaren ekoizpenekin irauten zuela.

Pariseko euskaltzale (erdiak erdaldun) gogokoenik zituzten euskaldun base-rritarrez eta mauletar espartingileez trufatzen ziren txisteak. Apika, ez zen Euskal Herriko herri sinplea, biarritar gastronomo, pilotari, dantzari aberatsen giroan laketago, baina hain ziren geografiaz eta mentalitatez arrotzak.

Parisen jaio Igelako bi zuberotar semeek frankotan entzun beharra zuten, naski frantsesez “Né à Paris vous n’êtes pas basque”. Parisen jaio eta ezin zara euskaldun izan. Eta erantzuna entzun behar zuten. “Ukuilu batean jaio banintz zezena ninteko?” Frantsesera itzuli behar zitzaiena ezen horiek jaiotze-agiria eta deiturak nahikoak zituzten “basque” izateko eta euskal kultura eta hizkuntza besteentzat. Erdaldun abertzale zirenean belaunaldi zaharrekoek zioten Euskadik askatasuna izango zuenean dena errazago izango zela. *Igela* aldizkaritik kanpo *Egan* aldizkarian eta *Euzko Gogoan* erantzun zieten Irlandaren zoritxarrezko adibidea emanaz eta nola independentziarik gabe katalana edo galesa bizi ziren.

Ez uste euskal kultura erdaltzaleren alde zeudenak besteei irekiago zirenik, Igelan irakur daiteke:

Eskualtzaleek gehiegi jaten

Eskualtzaleen Biltzarra frantseseko norbaitek erran du: “je vomis la culture française” Frantsesez erran baitu dudagabe frantses kultura hortarik gehiegi jan zuen. Euskal kulturaz nahi bada bizi, erraz gosez hilgo edo batzuen gisa Igelaren azpiak jaten ibiliko.

Orain, baserriko munduan bizitu eta laurogei urtetara iritsi diren biarnes eta euskaldun askok gogoan dute nola herriko erretoreak plazako dantzaldien ikusten zetozen beren neska fededun ezkongabeak dantzatzen zirenez ikusteko; ikusten zituztenean dantza egiten konfesio txartela ukatzen zieten. Txomin Peillenen lehen-gusinei gertatu zitzairen eta batzuetan bizikletaz herritik urruti dantzara joaten ziren.

Parisen, langile xume gehienak ez ziren abertzale baina beren artean gehienetan euskaraz ari ziren, euskaraz irakurtzen ez zekiten: ez zen hor Igelarentzat inolako giorik, gainera, urte haietan *Eskual Etxea* apezek eta demokrata kristauek kontrolatua zen. Sozialistak ere saiatu ziren kontrol horretan. Masturbazioaz idatzi satira bat Miranderi ukatu zitzaion orduko *Eskual Etxeko* “arimazain” delakoaren eraginaz, halaber, Peilleni ukatu Aljeriako gerrateari buruzko narrazio bat. Geroago etorriko ziren Parisera ikasle progresistak Espainian ematen ez ziren ikasgaien entzutera, baita hegoaldeko eta iparraldeko abertzale euskaltzaleek euskarazko klaseak eta kultur ekitaldiak ematen jarri ziren. Ordukotz Mirande hila zen.

Hegoaldean *Igela* sartzea, 1962. urtean? Pentsa! *Euzko Gogoa* zintzoa nekez sartzeko zelarik, *Igela* berdin. Gainera, uste dut Hegoaldera igaro ziren apurrak, gehienak belaunaldi zaharrak zakarrontzira botatu zituela eta Iparraldekoen artean bizpalauek aleak gorde.

Paristarren bultzatzaileen artean Juan San Martinek Igelaren aurkako gipuzkoar garbizale bati gutun agiri hau idatzi zion eta Igelak argitaratu (*orduko grafian utzi dut*):

“Adiskide batek esan zuan bezela, euskal aldizkariak illargia bezela dabilta, sortuz eta suntsituz. Aspaldiko urte oietan beintzat orrela ezagutu ditugu bat ez beste guziak. Bakar orren antzera aite-ponterik ez dutelako edo berak bezela egan egiteko egoak palta dituztelako. Jakiña, aitaponteko gabe eta egaz gabe porrot egin bear.

“Igela etorri zaigu kidekoak etziranen utsunea betetzera eta onentzat ere bazan ordua, dalako, *kontrapixua zuzeneko maixua*.

“Euskal irakurle guziak ez ditu poztu, naiz ta guziak irakurri. Orrelako mirakulurik ez du egin beste aldizkari batek Madrilgo “Galeperrak ” edo izan ezik.

“Nere aldetik begi onez ikusi dut aspaldian euskerazko irakurgai gutxikin jabetzen nintzalako. Ta heterodoxo bezela neuk ere eman ditut, asmo onez eta biotzez, gure euskal folkloreaken kimu batzuk. Aldizkari orretarako ongi datozenak eta beste inork argitaratu gabeak, naiz eta erriak agoz-ago erabili. Euskaltzale batzuek folkloreaken alderdi bat ezagutzen dute eta erriak biak. Baña, *au ez-bearra beraren bearra guretzat parra eta beste-entzat negarra*. Etorri zitaidan biaramunean adiskide on bat umore onean kontu eskatu naiean Igelaren gañean” I zertan ari aiz orrelako aldizkari naskagarri bati laguntza ematen? Ez al aiz lotsatzen?”

“Bai, baliteke. Gure erriko Kareaga zaarrak esaten duan bezelaba *omen dek gauza bat mundu ontako gizonen artean gutxiago dutenak geiago duteneri ematen diena: lotsa*. Baña, ez adi larritu adiskide, elkar ongi ezagutzen gaituk eta . Gaur gaurkoz mundua zabalak dek eta oraindik guzientzat aina toki badek. Ta geroago ere izango dek zerbait. Maltusianismoa ontzat artu bearraren premiña eltzen den orduan, izango diagu aserretzeko denbora. Bitartean, Igela etzeok gaizki elkarrekin broma pasatzeko. Zergaitik bromak benetan artzen ere ikasi, bearra diagu eta ortarako ez dek Igela eskola txarra. Leenago ere esan nian leenagoko euskaldunek bazutela umorea franko, ta, orain “franko” dala ta aserre gabiltzala. Obe diagu Fran-Fran motzarentzat Txirritaren eskola, umorezko bertsoak jarriaz.

“*Dagonean dagona, itxasoko arrairik onena*. Leenago ere Euzko Gogoan idazten nualako, beste batek, beste orrenbeste esan zian, bana bestaldera. Ta, nik ikara gabe jarraitu nian nere bidea “arkibidea” aretatik ta orain balantzak eskatzen zidak “galbidea”kotik zear ibiltzea erdikobidea aipatua billatu eziñik. Orrela dituk gauzak. Iztuetak esan zuan bezala:

“*Egia cierto garbia/ Ez da gauza mingarria*”

“Ik ongi dakik gure “Españia katolisismoan” Euzko gogoarentzat etzala gogorik, eta sarrera galerazi zutela eta Igela bestalderakoa izanik ez duela orrelako saltzetan sartzeagaitik emengo txapeloker ta bigotedunek obeto ikusiko nautela, leengo “arkibidekoan” bano askozaz ere obeto. Orduan beintzat ez ninduten begi onez ikusten. Bista onarekin ikusi ezin ura etzuan gauza ona.

“Inpernura joango naizela? Etxakiat zeruak berak geiago ez nauan beldurtzen, ala erez “donokiak”. Jesus! An izango dituk izatekoak. Paliopcan promenatzen duana eta atzobispo “odolostea” ta bere ingurukoak zerurako badituk, nik naiago diat inpernua. Pakea, diruarekin ere ez dek pagatzen.

“Igelak umore latza dik. Bai. Egia esan dek. Baa obe diagu geure laguntzarekin, geure anduaz leundu, eta ez asi illarterañoکو aurkan. Ortarako etsaiak beti izango dituk euskera-arentzat. Alperrik esan otsoak otsokirik ez duela jaten, artzak ere gugandik urbil diranean.

“Gañera Igelak euskera ere ez duala zuzenbidekoa? Alajana! Ez dek gauza berririk deskubritu. Gure baratzean (ez ordea asaba zaarrenean) bi euskera dituk. Ez al ekian? Ba, bai euskaldunena eta bestea. Ta, nik neronek naiago diat egin euskaldunen euskeraz. Elkar ikusi arte. Bista txarrakin ere ongi begiratu”.

J. San Martin in *Igela*

Lehenbiziko Igelazale eta bultzatzaileen artean Andima Ibinagabeitia izan genuen eta hona lehen hiru aleak ikusi ondoren Caracastik zer idatzi zion Txomin Peilleni:

“Egia esan, zenbaitentzat tupustarri izan baldin bada zuen aldizkari pullita, enetzat beintzat eredugarri izan da. Ederki erakutsi diezue gure arteko fariseu belunei gure izkuntza ez tala folklorerako bakarrik, baita adimenaren nola-nahiko fruituak erakusteko ere. Zuen adimen zorrotzarenak iakingarriak dira. Luzaro ez tala emengo irri aldizkari andana bat bidali nizun *Oilar lumatu*, *Mingain luze* e.t.Hor ditukezu bear bada Bertze erriek eta izkuntzek egiten dutenik, guk ez ote dezakegu egin? Ez asto zenbaiten ustez, eta asto oriek eraman digute gure izkuntza dagoen egoera negargarrira. Ondo dakit bai, ez zabiltzabela diruketa euskerarentzat ohoreketa baizik. Baina, helas! Zuek kondenatzen zaituten abertzale otsezko erdel-iarieok, ez dute inoiz euskerarentzat laidoa besterik nahi izan. Urra ditzabela nahi baldin badute beren soinekoak eta erriak aisago ikusiko ahal izango ditu aien lotsagarri (pudendae) ustelak. Eta benetan poztu naiz jakitean oraindik beste ale bi gertatuko dituzuela Bibliothèque Nationalen lo dauden zenbait paper aizatuz. Eguratsa, eguratsa bear du euskerak eta ez oraiarteko abertzale erdarari salduak eman dioten lobelar-atsa.

Ekoizpena. Sei zenbaki kaleratu zituzten, azkenak herri bertsuekin eta bat Etxahun Barkoxen ohoretan. Beren sakela txikietatik ari ziren eta *margarita porcos* emateaz aspertu ziren. Peillenek ez ditu ahaztu garai haietan harpidedun izan zituena, Iparraldeko bizpalauak hala nola Jean Haritschelhar edo Beñat Possompès eta hegoaldeko hogeita bata.

Subentziorik gabe Igela diru galtzen ari zen eta honela ezin zen itxuraz hobetu. Gure Igela, gure ugarazia, gure txantxikua euli gabez hil zen. Bestela ere, Miranderi esan ondoren uzten zuela, Jon Mirandek zeuzkan Igelaren azalak baliatuz eskuin muturreko usaina zerion Goulvenn Pennaod naziak ongi inprimaturik azken ale bat zuzendariaren isilik eman zuen; Txominek ez zuen banatu eta bi hilabeteren buruan zuen ikusi, zuzendariaren izenik eta aldizkariaren helbiderik gabe. Halere, aldizkaria ez zen politika hutsera igaro.

Orduan, izan zuten bi paristarrek beren hotzaldia; gero, ika-mika gogortu zen artikulua batean “Hitler biktimaren ‘kultura’ politikaz” Txominek gaizki esan zuelako. Ibinagabeitiari idatzi zuen Mirandek ez zuela Txomin gehiago ikusten. Andimaren heriotzatik landa, geldiro elkar ikusi zuten eta emaztearekin, urtean bi bider, berriz gonbidatu.

Orain, Igela irakurtzen denean ordukoen ezinikusia nekez ulertzen da: jakina, Euskal Herrian *maketoak*, *koreanoak* larrutzen zirelarik *Igelan* abertzaleak, apaizak,

burgesak, folkloreakeria zarramikatu zituzten; ondoren, gazteek euskal gizartea garrazki karrakatuko zuten, hasiz *Pottekin*, *Susarekin* apur bat, *gogorkiango Napart-heidekin* eta ezin *gogorkiango Ostiela* eta besteekin. Baina, gure aldizkaria baino askoz hobeki eta giro askeago batean ausartago izan dira. Agertu zirenean batzuk *Igela* agurea agertu zuten. *Igela*, goizegi etorri zen, baliabide gutxirekin, hots San Juan Blasfemistak *vox clamandi in deserto*. Orain, argitaletxe batek pornografia saila ere badu.

Igelak ez zuen besterik egin isilpean euskal gizartean gertatzen zirenak agerian jartzea baino, hain zuzen *Igelaren* aurka agertu ez ziren apaiz eta prakadun zenbaitek ulertu zuten hala nola *Igelan* idatzi zutenek kanpo, Salvatore Mitxelena, edo Nemesio Etxaniz. Bai, errazago izan zen, euskaldun zenbaiten zentsura gora behera, Euskal Herritik urrun halakoak idaztea eta Ameriketara argitaratzea.

Igela eta oraingotasuna. Dela berrogeita hamar urte sortu zen *Igela*. Zein dira hartaz oroitzen direnak? Hegoaldeko euskaldunak. Txomin Peillenek mendeurren horren kariatara sei eskaera izan ditu, denak Hegoaldekoak, *Argia* astekarian artikulua, *Berría* egunkarian eta *Garan* orrialde osoa, *Bizkai Irratian* emankizuna, beste bat *Euzkadiko Irratian* eta *Euskal Telebistan* elkarrizketa bat, orain Eusko Ikaskuntzaren arduraz, RIEV aldizkarirako artikulua hau. Iparraldean ezer ez. Iparraldeko euskal irriak mutu eta euskal prentsa itsu. Bai, iparraldetarrak betiko intolerantzia bizi zaizkigu eta ezkerreko edo kristau progresista ez denak, ez du ezer balio. Iparraldekoek *Igelari* barkatzen ez diotena, eskuin muturreko Mirande sortzaileen artean egotea, da. Elizako dotrinatik, ezkerreko dotrinara igaro da Iparraldea. Literaturaren askatasuna zer den ulertu al dute? Hotsandiko literatura nahi eta umore-gabekoa, belun, nostalgikoa eta progresista nahi lukete, duintasuna eta handinahikeria nahasiz.

Ordurako Jon Mirande ospetsua zen ipar eta hego euskal puritanismoaren hipokresiarri erantzuteko sexu askatasuna goستن baitzuen, euskal abertzale baketsu lokartuei borroka armatua proposatzen. baita Nafarroa konkistatu zenean Elizaren jokabidea, Frankoren faxismo santujaleraino eta Ipar Euskal Herriaren lekuka (Manexean) eliza gizonen gazteak moralkerietan sartzen zituztelako. Hauen guztien aurka idatzi zuen Mirandek, politika aipatu gabe; horiek guztiengatik *Igelak* sufre usaina zeukan nahiz Miranderen gogoko ideia bortitzenak ez ziren *Igela* aldizkarian agertu.

Mirandek gizarte apur bat anarkikoa amesten zuen eta ez du ezagutu, baina haren heriotzaren ondotik ikusi da nola gazte askok ez duten Jainkoagan sinesten eta apaizgaitegiak franko hustu, gogoratu gabe zenbat fraideek eta apaizek beren sotanak utzirik mundu berritzaile batean sartuko zirela eta hori dena ezin *Igela* antikerikal hotsezkoari egotzi. *Igela* anfibio txikiak horrelako ezinikusi handiak sortu bazituen menpekotasun baten seinale zen: euskal gizartearen bizi moldean ezerk ez zuen aldatu behar politika boterea baizik eta hor ere lokartu askatasun ametsak 'gazteriarren usteltzaile' batzuk ekintzetara igarotzera bultzatu zituen.

Politikaz agertu zen satira bakarra Mirandek berak *Igelaren* azken zenbakian eman zuen *Herri saindu eta demokratiko baten parabola* baina hor ez zen azti ona izan amestu zuen Euskal Herriaz puritanismoa eta EAJ osorik jabetuko zirela. Ha-

lere, Miranderi eskandalua gogoko zitzaion baina amesten zituen sexu askatasun horiekin, materialismoarenganako higuin horrekin, eta adierazpen askatasun horrekin nazismoa garaile eta nagusi izan balitz Mirande espetxean sartuko zuketean; gutxiagoagatik zigor zelai beltzetan sartu zirenak, baziren.

Azken hogeita hamar urteetan zubi azpitan doazen urak ez dira berdinak, ez hain benedikatuak, ez eta gardenak. Ez da Igelaren errua, ez du Igelak “gazte-riaren usteltzeko ” astirik izan 1975 urtetik aurrera, mutur batetik bestera igaroaz, Euskal Herrian sexu zapalkuntzaren ondotik, Movidarekin sexuaren inperiokeria igaro bada; baina ez al da puritanismo uhin berri bat sortzen ari? Europar gizarteek gelditu gabe, beren balore eta tabuekin zabuka eta kulunka, mutur batetik bestera ibiltzeko ohitura daukate.

Txomin Peillenek ez du damurik ez eginaz, ez utziaz. Eskarmentu hartaz zer-bait gorde du, haren ustez, bigarren mailako idazle egiten duena, bere hogeita zenbait literatura lanen artean, herri literaturaren tradizio jarraikiz, denetara bost humorezko liburu, hiru eleberri, gehi bi ipuin bilduma eman dituelako.

Aurkibideak

Igela 1 (1962 otsaila)

Gure mitologia
Heterodoxoen xede eta egingai bereziak
Kapitalismuaren alde
Langillea kexu, beargina asarre
Euskaldun garbia Espaniako modan, **D. Peillen**
Euskaldun itsusia (The ugly basque)
Gure sloganak eta parabolak
Arrantzale zarraren dritxoak
Erotika euskaldunaren lore zenbait
Kama Goli, **J. Mirandekoak egina**
Besten alorretik. Kattalin
Jon Dane Aqherrunen bicitce saintia. **D. Peillen**
Igel erriko berri nagusiak (irriz-irri)
Gure salgaiak
Une revue satirique en langue basque: *Igela*

Igela 2 (1962 maiatza)

Afrika Baionan hasten, **D. Peillen**
Urrezko igela, **D. Peillen**
Logika, **J. Mirande, D. Peillen**
Ethika, **J. Mirande, D. Peillen**
Euskaldun zintzoen ideia hiztegia
Nola lapur edo ohoen bilhakatu, **D. Peillen**
Arrantzale zaharraren dritxoak
Erotika, **D. Peillen, J. Mirande J. San Martín**
Prensa - presse - berriketariak, **D. Peillen**
Gure buruxkak
Ez itsasoan ez airean
Argi artifizialak
Gauza reserbatuak
Igel klerikala. Kofesio ona, **J. Mirande**
Igel antiklerikala, **J. Mirande**
Gure salgaiak
Kritikak
Igelerriko berriak

Maita-bide berriak
Euskaldunen strip-teasea
Razismuaren zokoa
Xikitoak, **D. Peillen**

Igela 3 (1962 maiatza)

Pierre TOPET-ETXAHUN (1786-1862), **D. Peillen**
Mundian malerusik, **Etxahun**
Ahargo eta Kambilla
Bi ahizpak
Maria Solt eta Kastero
Belhaudiko bortian
Gure huntarzunak juaiten
Izar berri bat
Ba-nin adiskide bat
Junes Ligueix-Etxekopar
Louis Ligueix
Igaran Sen Bladis
Beñat Mardo
Behiak, **J. Mirande**
Batista Sala
Etxahun Iruri
Irakurleari...

Igela 4 (1962 urria)

Igeltxoaren uztak
Igelak, besteak eta gañerakoak, **J. San Martín**
Oe-lagunak, **Irigoi**
Euskaldun zintzoen balada, **J. Mirande**
Euskaldun itsusia
Sadikoen zokhoa
Aholku batzu zure lagun urkoa ostutzeko
Gauza reserbatuak
Hume gaitzen iphuinak
Vasconicae linguae erotici glossari tentamen
Igelak azken hitza bere

Igela 5 (1963 urtarrila – martxoa)

Lettre ouverte au redacteur d'Igela, **D. Peillen**

Igela-ren zuzendariak Peillen jaunari

Hirur boztarioak, **Irigoi**

Hirurgarren boztarioa. Sadikoaren xokhoa, **J.**

Mirande

Euskaldun itsusia, **D. Peillen**

Txoriontasun, **J. Mirande**

Frantsez bezi gaiten

Asarrearen kronika (gizon txipiez eta handiez),

A. Ibinagabeitia

Aholku batzu zure lagun protsimua ebasteko
(edo nola lagun urkoa estutzen zaitun), **D.**

Peillen

Euskaldun mintzaia, hizkuntza, izkera eta
berba sakratua

Nola ez den behar mintzatu (argot baten
lehen urhatsak)

Igel herriko berriak

Gure salgaiak

Artikulu batzuen giltzak

Igela 6 (1963)

Albadak, chiquitoak, erran zaharrak

Xikitoak

Erran zaharrak (Les proverbes)

Autres proverbes

Supplement au manuscrit 202